

# Carmina Burana

## Zenbait kantu profano

KARLOS DEL OLMO

1934an Orffen eskuetara Erdi Aroko alemanez eta latinez idatzitako eskuizkribu bat heldu zen. *Carmina* (kanta, latinez) *Burana* (Beurengo monasterioan aurkitu zutelako) bilduma garai hartan Europa alde hartako adituek ezagutzen zuten Erdi Aroko kanta bildumarik garrantzitsuena zen. Estiria inguruan 1220tik 1250era bitartean idatzia, 1847an plazaratu zuen Andreas Schmeller-ek. Bilduma irakurri eta egun gutxiaren bueltan, musikariak zegoeneko landuta zituen kantata eszeniko baten oinarriak, eta 1935a eta 1936a bitartean partitura paratzen hasi zen. Carl Orffek jatorrizko bildumako poema batzuk besterik ez zuen aukeratu, bilduma askozaz ere zabalagoa delako.

Ordura arte jendeak Orff ezagutzen zuen musika pedagogo eta antzinako musikan aditua zen aldetik, baina 1937an *Carmina Burana* Alemanian estreinatu zuenetik, konposatzaile gisan ere ospe handia bereganatu zuen. Egundako oso entzutetsua izan arren, hasieran kritikariek ez zuten obra larri ondo hartu: musika aldetik, halako jazz ukitu

batzuk igartzen zizkieten, lirikari dagokionez, ordea, letra “ulergaitza” gertatzen zela zioten. Orffek *Cantiones profanae cantoribus et choris cantandae comitantibus instrumentis atque imaginibus magicis* deitura gaineratu zien, hau da, kantari eta koreutentzako kantu laikoak, instrumentuekin eta irudi magikoekin xaramelatu beharrekoak.

Bilduma benetako *summa poetica* moduan gorde zuten monasterioan 1806a arte, urte hartan sekularizatu ziren-eta Inperio Sakroaren Estatuak. Osoaldi biziaren lekukotasuna ematen dute neurtitzek, Erdi Aroaz badihardugu ere, XII. mendean mundu modernorako bilakabidea hasia zela esan dezakegulako. Inperioko Erroma desegin ostean, menderik mende kultura monasterioetara aterpetu zen, klero erregularraren ondare bihurturik, batez ere ordena beneditarren adar ezberdin eta ugariak (klunitarrak, zistertarrak) eraentzen zutela. Hiriak sendotu ahala, beste kultura mota bat garatuz joan zen, alde zituena errege-erreginen babes eta obispoen sustapena (ez zituzten oso begi onez ikusten monjeak). Eta monas-

terioen ingurukoa barik, kultura berri hura sekularra zen, mundutarra.

Monasterioetako kulturaren eta sekularraren arteko kontrakarraren haragitzetik nabarmenena San Bernardo Clairvauxkoaren eta Pedro Abelardo filosofoaren arteko auzia dugu. Azkena egun ezagun-ezaguna dugu Eloisari zion onerizkoaren inguruan eraturiko legendaren ondorioz. Sinesmen arerio biek elkari aurpegiko larruak ondo ere ondo ikusi zizkieten 1140. urtean, Sens-eko kontzilioan. Batzar hark Abelardoren tesiei gaitz iritzi bazien ere, ez zuen lortu garai hartako gizarteak filosofo maitemindua gizakion pentsamenduaren gailur argitsuenetako batzat jotzea galarazterik. San Bernardok, Abelardori azpia jatearren, ikur biblikoen mendean bizi zen garai batean, pentsalariari Goliat deitu zion, Txerrenen beraren osagai txar guztien pertsonifikaziotzat zutelako. Izengoiti horretatik ei dator “goliardo” izendatzea *Carmina* horien egile izan litezkeen poetei. Nortzuk ziren, ordea, goliardo entzutetsuak?

Arte hartan, Europako bideak pelegrinek eta gerrariak beste inork ez zituen higatzen. Apur-apurka ikasleen ibilgu ere bihurtzen hasi ziren, unibertsitate eta kolegioak eratu ahala. Dena dela, garai hartako gizarte lotuan askatasun apur bat izateko modurik onena kleriko sartzea zen; ez zegoen, barren, zertan apaiz ordenatu, tontsura jasotzea nahikoa zen eliz estamentuari atxikitzeko. Oso erlijio bokazio sendorik ez zuten kleriko haiek, loturarik gabeko eliz jende alde-rraia izanik, *clerici vagantes* izeneko ordenak eratu ohi zituzten, eta jaiotzen ari ziren unibertsitate eta eskoletako ikasleekin batera, goliardoek gizarte klasea hezurmamitu

zuten. Goliardo zeritzeten, arestian esan legez, eliza katolikoaren sinbologian Goliat gauza txar askoren ikur garbi eta ezaguna zelako. Goliardoek bizipoza, mundu hone-tako plazerak, haragizko amodioa eta natur zaletasuna aldeztu ez ezik, gizarte eta eliz estamentu ofizialei sano kritika satirikoak egiten ere zizkieten. Erdi Aroak izan ohi duen iluntasun sona horretatik oso urrun ziren, beraz, bizi jomugaren aldetik.

Literatur osagaiari gagozkiola, Goliardoek mugimendu poetikoa Alemanian, Ingalaterran, Frantzia eta Espainian garatu zen, espezialki, XI. mendetik XIII.era bitartean. Oso giro landu eta literaturzalean sortu zen joera, eta idazlariak Eliza ofizialeko kleriko, ikasle edo kapare izan ohi ziren, erretorika latindarra eta klasikoen literatura ondo menperatzen zituztenak. Eliza Katoliko ofizialaren kezketatik eta gizarte modu arruntetik ihesi, bizilege alaiago batera alde eginez, haien literatur kezka eta sormena inguruko giroa satirizatzeko poesiak sortzera bideratu zituzten: liturgiako erresien seriotasuna eta maiestatea parodiatzen zituzten, ikasle pikaroen malezia eta pikardia goraiatzeko eta gaitzat ardoa eta maitasuna erabiltzen. Poesia landuari berrikuntza ekarri zioten, unibertsitateko katedratik eta tenpluko pulpitutik tabernara eta putetxera eraman zutelako, baina ez herri xehea dibertiarazteko asmoz, herritarrak nekez ulertu zituztenak latin jori hura eta halako txiste intelektualak. Hartzaileek, beraz, gutxiengo elitista bat eratzen zuten, goliardoek poesia oso prestakuntza intelektual handia zutenek besterik ezin zutenetik behar bezala dastatu. Hara hor kantu sorta profano hau hobeto ulertzeko zenbait lorratz.

## FORTUNA IMPERATRIX MUNDI

### 1. O Fortuna

O Fortuna  
velut luna  
statu variabilis,  
semper crescis  
aut decrescis;  
vita detestabilis  
nunc obdurat  
et tunc curat  
ludo mentis aciem  
egestatem,  
potestatem  
dissolvit ut glaciem.

Sors immanis  
et inanis,  
rota tu volubilis,  
status malus,  
vana salus  
semper dissolubilis,  
obumbrata  
et velata  
michi quoque niteris;  
nunc per ludum  
dorsum nudum  
fero tui sceleris.

Sors salutis  
et virtutis  
michi nunc contraria,  
est affectus  
et deffectus  
semper in angaria.  
Hac in hora  
sine mora  
corde pulsum tangite;  
quod per sortem  
sternit fortem,  
mecum omnes plangite!

## FORTUNA, MUNDUKO ENPERATRIZA

### 1. Oi, Fortuna

Oi, Fortuna,  
nola iretargia  
burubidez aldagarria,  
beti goraldian  
edo beheraldian!;  
bizi gaitzesgarriak  
aurrena du sorgortzen  
eta gero akuilatzen,  
olgetan, adimen zorrotza;  
pobrezia,  
aginpidea  
urtuta izotza legez.

Zori odoltia  
eta zirtzila,  
zu, gurpil aldakorra,  
jite txarrekoa,  
osasan hutsalekoa,  
beti eta beti urkorra,  
gerizpetsua  
eta estalia  
niretzat ere dirdira;  
orain jostatze hutsez  
bizkarra biluzia  
eroanarazten dit zure zitalkeriak.

Osasun zoria  
eta dohaina  
orain nire aurka,  
hara hor onerizkoak  
eta akatsak  
beti nekepe modura.  
Ordu honetan  
luzapenik gabe  
jo itzazue ene bihotz hariak;  
zeren zoriak  
bota baitu irmoa,  
egin denok nirekin negar!

## **2. Fortune plango vulnera**

Fortune plango vulnera  
stillantibus ocellis  
quod sua michi munera  
subtrahit rebellis.  
Verum est, quod legitur,  
fronte capillata,  
sed plerumque sequitur  
occasio calvata.

In Fortune solio  
sederam elatus,  
prosperitatis vario  
flora coronatus.  
Quicquid enim florui  
felix et beatus,  
nunc a summo corru  
gloria privatus.

Fortune rota volvitur:  
descendo minoratus;  
alter in altum tollitur;  
nimis exaltatus  
rex sedet in vertice  
caveat ruinam!  
nam sub axe legimus  
Hecubam reginam.

## **2. Fortunak zaurituta negar degit**

Fortunak zaurituta negar degit  
begi malkotsuekin,  
bere faboreak dizkidalako  
kendu moldakaitz horrek.  
Egia da, hala leitzen baita,  
geroko gereziekin,  
esaerak hala darraio,  
ezin dela ase inor.

Fortunaren tronuan  
eseri nintzen goratua  
aberasbideak naroki  
lozez koroatua.  
Zinez, nola nintzen loratu,  
zoriontsu eta alairik,  
berdin gero goratik malkartu  
loriaz gabeturik.

Fortunaren gurpila biraka:  
ni gutxietsita beheraka;  
besteren bat gora daroa;  
lar goraipaturik  
erregeak, erpinean jarririk,  
galbidea du zelatari!,  
ardazpean baitugu leitzen  
Hekabe dela agintari.

#### **IV.- IN TABERNA**

##### **11. Estuans interius**

Estatus interius  
ira vehementi  
in amaritudine  
loquor mee menti:  
factus de materia,  
cinis elementi  
similis sum folio,  
de quo ludunt venti.

Cum sit enim proprium  
viro sapienti  
supra petram ponere  
sedem fundamenti,  
stultus ego comparor  
fluvio labenti,  
sub eudem tramite  
nunquam permanenti.

Feror ego veluti  
sine nauta navis,  
ut per vias aeris  
vaga fertur avis;  
non me tenent vincula,  
non me tenet clavis,  
quero mihi similes  
et adiungor pravis.

Mihi cordis gravitas  
res videtur gravis;  
iocis est amabilis  
dulciorque favis;  
quicquid Venus imperat,  
labor est suavis,  
que nunquam in cordibus  
habitat ignavis.

#### **IV.- TABERNAN**

##### **11. Barnetik garretan**

Barnetik garretan  
ira sukorrez  
garraztasunean  
neurekiko berbetan:  
materiaz egina,  
errauts ekaiaz  
hostoa dirudit,  
haizearen jostagarria.

Berezko izan arren  
gizaki jakitunak  
harri gainean jartzea  
egoitzaren bermea,  
ene lerdoa erkatzen naiz  
ibai zalantziatiarekin,  
ibilgu beretik  
inoiz ez baitirau.

Ni eramaten uzten diet  
marinelik bako barkuak  
eta airebidez  
alderrai doan txoriak lez;  
ez naute estekek lotzen,  
ez giltzak ixten,  
antzekoak ditut bilatzen  
eta zitalekin elkartzen.

Bihotz zentzutasunari  
gauza grabea deritzot;  
olgeta atsegina da  
goxoagoa abaraska baino;  
Venusen agindu oro  
lan arina da,  
inoiz ez baita bihotz  
ahuletan bizitzen.

Via lata gradior  
more iuventutis  
inplicor et vitiis  
immemor virtutis,  
voluptatis avidus  
magis quam salutis,  
mortuus in anima  
curam gero cutis.

Bide zabaletik nabil  
gazteak ohi bezala  
bizioetan endredatuta  
bertuteaz atzenduta,  
plazera desioago  
salbazioa baino areago,  
ariman hilotzik  
azalaz arduraturik.

## 12. Olim lacus colueram

Olim lacus colueram,  
olim pulcher extiteram,  
dum cignus ego fueram.

Miser, miser!  
modo niger  
et ustus fortiter!

Girat, regirat garcifer;  
me rogius urit fortiter;  
propinat me nunc dapifer.

Miser, miser!  
modo niger  
et ustus fortiter!

Nunc in scutella iaceo,  
et volitare nequeo  
dentes frendentes video.

Miser, miser!  
modo niger  
et ustus fortiter!

## 12. Antzina lakuak apaintzen

Antzina lakuak apaintzen,  
antzina galant agertzen,  
artean zisnea nintzen.

Erru-errukarria!  
gogotik esmeria  
eta guztiz kiskalia!

Jira-biraka nau sukalkinak;  
suak gogor kiskalia;  
orain mahairatzen zerbitzariak.

Erru-errukarria!  
gogotik esmeria  
eta guztiz kiskalia!

Orain erretiluan natza  
eta egin ezinik hegaka  
hortz zorrotzei behaka.

Erru-errukarria!  
gogotik esmeria  
eta guztiz kiskalia!

#### **14. In taberna quando sumus**

In taberna quando sumus  
non curamus quit sit humus,  
sed ad ludum properamus,  
cui semper insudamus.  
Quid agatur in taberna,  
ubi nummus est pincerna,  
hoc est opus ut queratur,  
si quid loquar, audiatur.

Quidam ludunt, quidam bibunt,  
quidam indiscrete vivunt.  
Sed in ludo qui morantur,  
ex his quidam denudantur  
quidam ibi vestiuntur,  
quidam saccis induuntur.  
Ibi nullus timet mortem  
sed pro Baccho mittunt sortem.

Primo pro nummata vini,  
ex hac bibunt libertini;  
semel bibunt pro captivis,  
post hec bibunt pro vivis,  
quater pro Christianis cunctis,  
quinquies pro fidelibus defunctis,  
sexies pro sororibus vanis,  
septies pro militibus silvanis.

Octies pro fratribus perversis,  
nonies pro monachis dispersis,  
decies pro navigantibus,  
undecies pro discordantibus,  
duodecies pro penitentibus,  
tredecies pro iter agentibus.  
Tam pro papa quam pro rege  
bibunt omnes sine lege.

#### **14. Tabernan gaituzula**

Tabernan gaituzula  
heriok guri bost ardura,  
jokora jotzen dugu orduan,  
beti izerdi koipetuan.  
Tabernan ari garela,  
non sosa den edari bidea,  
horra hor ulertu ezina,  
beraz, adi ezazue nire ekina.

Nor jokoan, nor edanean,  
batzuk bizi dira bitzuetan.  
Zeren jokoan ari direnetarik  
batzuk jo eta biluzgorriak,  
besteak bertan beztiturik,  
bat edo beste zakuz jantzirik.  
Han inor ez herioren beldur  
zoria utzi baitute Bakoren esku.

Lehena ardoak aberastuaren alde,  
harengatik edaten baitute libroek;  
bestea ahoratzen presoen izenean,  
gero hirugarrena irensten bizien alde,  
laugarrena kristau guztien izenean,  
bosgarrena sinestun hildakoen alde,  
seigarrena ahizpa friboloen izenean,  
zazpigarrena gudari salbaien alde.

Zortzigarrena frai perbertsoen alde,  
bederatzigarrena monje barreiatuen izenean,  
hamargarrena nabigatzaileen alde,  
hamaikagarrena disidenteen izenean,  
hamabigarrena penitenteen alde,  
hamahirugarrena ibiltarien izenean.  
Bai aita santuaren nola erregearen alde  
denek edaten dute legerik gabe.

Bibit hera, bibit herus  
bibit miles, bibit clerus,  
bibit ille, bibit illa,  
bibit servus, cum ancilla,  
bibit velox, bibit piger,  
bibit albus, bibit niger,  
bibit constants, bibit vagus,  
bibit rudis, bibit magus.

Bibit pauper et egrotus,  
bibit exul et ignotus,  
bibit puer, bibit canus,  
bibit presul et decanus,  
bibit soror, bibit frater,  
bibit anus, bibit mater,  
bibit ista, bibit ille  
bibunt centum, bibunt mille.

Parum sexcente nummate  
durant, cum immoderate  
bibunt omnes sine meta.  
Quamvis bibant mente leta,  
sic nos rodunt omnes gentes,  
et sic erimus egentes.  
Qui nos rodunt confundantur  
et cum iustis non scribantur.  
Io!

Edale andrea, edale jauna,  
edale gudaria, edale abadea,  
edale mutila, edale neskatila,  
edale morroia, edale neskamea,  
edale arina, edale geldoa,  
edale zuria, edale beltza,  
edale ekinkorra, edale alferra,  
edale zakarra, edale igarlea.

Edale behartsua eta gaixoa,  
edale jazarria eta ahaztua,  
edalea gaztea, edale edadetua,  
edale prelatua eta dekanoa  
edale serora, edale fraidea,  
edale amama, edale ama,  
edale hau, edale hura,  
edale ehunka, edale milaka.

Gutxi seiehun txanponek  
iraun, noiz neurrigabe  
denek helmuga barik duten edaten.  
Gogo biziz edan bezate,  
nola denok gu ahotan maneiatu,  
eta hala izango gara premiadun.  
Nahas daitezela gure maiseatzaileak  
eta justuekin inskriba ez ditzatela.  
Ondo!



**18. Circa mea pectora**

Circa mea pectora  
multa sunt suspiria  
de tua pulchritudine,  
quae me laedunt misere.

Manda liet, manda liet,  
min geselle chumet niet.

Tui lucent oculi  
sicut solis radii,  
sicut splendor fulguris  
lucem donat tenebris.

Manda liet, manda liet,  
min geselle chumet niet.

Vellet Deus, vellent dii,  
quod mente proposui,  
ut eius virginea  
reserassem vincula.

Manda liet, manda liet,  
min geselle chumet niet.

**18. Nire bularretik**

Nire bularretik  
hainbat aiene sortzen  
zure edertasunagatik,  
maluruski nautenak zauritzen.

Zoaz eresi, zoaz kanta,  
ene maitea iritsi ez baita.

Dirdira dituzu begiak  
nola eguzki izpiak,  
nola oinaztargi dirdaiak  
ilunpeari egiten dion argia.

Zoaz eresi, zoaz kanta,  
ene maitea iritsi ez baita.

Alajainkoa, alajainkoak  
buruan ditudan asmoak,  
nola haren birjinitatea  
loturetatik aske uztea.

Zoaz eresi, zoaz kanta,  
ene maitea iritsi ez baita.

## 22. Tempus est iocundum

Tempus est iocundum,  
o virgines,  
modo congaudete  
vos iuvenes.

Oh - oh, totus floreo,  
iam amore virginali  
totus ardeo,  
novus, novus amor est,  
quo pereo.

Mea me confortat  
promissio,  
mea me deportat  
negatio.

Oh - oh, totus floreo,  
iam amore virginali  
totus ardeo,  
novus, novus amor est,  
quo pereo.

Tempore brumali  
vir patiens,  
animo vernali  
lasciviens.

Oh - oh, totus floreo,  
iam amore virginali  
totus ardeo,  
novus, novus amor est,  
quo pereo.

Mea mecum ludit  
virginitas,  
mea me detrudit  
simplicitas.

## 22. Denbora alaia da

Denbora alaia da,  
oi, birjinak,  
jostatu gisara  
zuek gazteak.

Oi, oi, guztiz loraturik,  
neskatilaren onerizkoagatik  
guztiz suturik,  
amodio berri-berriagatik,  
hiltzen naiz ni.

Naretzen nau  
promesak,  
erbesteratzen  
ezetzak.

Oi, oi, guztiz loraturik,  
neskatilaren onerizkoagatik  
guztiz suturik,  
amodio berri-berriagatik,  
hiltzen naiz ni.

Negu partean  
pertsanak eraman ona,  
udalehen aldarlean  
bor-bor odola.

Oi, oi, guztiz loraturik,  
neskatilaren onerizkoagatik  
guztiz suturik,  
amodio berri-berriagatik,  
hiltzen naiz ni.

Jostari nau jartzen  
birjintasunak,  
atzera dit eragiten  
sinpletasunak.

Oh - oh, totus floreo,  
iam amore virginali  
totus ardeo,  
novus, novus amor est,  
quo pereo.

Veni, domicella,  
cum gaudio;  
veni, veni, pulchra,  
iam pereo.

Oh - oh, totus floreo,  
iam amore virginali  
totus ardeo,  
novus, novus amor est,  
quo pereo.

Oi, oi, guztiz loraturik,  
neskatilaren onerizkoagatik  
guztiz suturik,  
amodio berri-berriagatik,  
hiltzen naiz ni.

Zatoz, dontzeila,  
pozarren;  
zatoz, zatoz, ederra,  
hiltzen naiz eta.

Oi, oi, guztiz loraturik,  
neskatilaren onerizkoagatik  
guztiz suturik,  
amodio berri-berriagatik,  
hiltzen naiz ni.

## **BLANZIFLOR ET HELENA**

### **24. Ave formosissima**

Ave formosissima,  
gemma pretiosa,  
ave decus virginum,  
virgo gloriosa,  
ave mundi luminar,  
ave mundi rosa,  
Blanziflor et Helena,  
Venus generosa!

## **LILIZURI ETA HELENA**

### **24. Agur ederrik ederrena**

Agur ederrik ederrena,  
gema preziooa,  
agur birjinen dirdira,  
birjina loriosa,  
agur munduaren argia,  
agur munduaren arrosa,  
Lilizuri eta Helena,  
Venus emankorra!